

Estatua ustelkerietan

Euskaldunon Egunkaria, 1995-09-26: 2.

Estatua da lurralde batean talde sozial guztien gainera dagoen erakunde politiko-administratiboa, gorenaren legea eta justizia. Balio horiek dira, hain zuzen, gizartearen piztu eta bizkortu nahi dituenak, omen. Asmo zuzen honen ustez aukeratzen du herriak demokrazietan, eta konstituzioa eta parlamentuak arautzen duen gobernu eta monarkiaren sinesgarritasuna, biak, nozituko ditu jokamodu zuzena okertzen bada. Espainian azken urtetan somagarri da erakundearen eta agintarien debaluazio larria. Egunkari borrokari bat nahiko izan da eskandalugarrizko baina egiazko diren agiri eta informazioak erabiliaz Estatuko instituzio eta pertsonen sinesterik eza lotsagarri agerian jartzeko. Era berean ari dira Estatu honetan bizi diren herriak agintariengan egun batean jarri zuten fidantza galtzen, eta zail egingo zaie buru arinei orain arteko deskonplimendua (legez agindutako transferentziak) eta gizartearen aurkako krimenak (GAL) itxuraz estaltzea. Telebistek kale gorrian egiten ari diren berenezko inkestak ikusentzun besterik ez dago herrian bertan zabaldu den txundidura egiaztatzeke. Honek ez du esan nahi, bestalde, Estatu mailan Partido Popularreko alternantzia politikoaren ezinbesteko aukera berria herri autonomoentzat, bereziki euskaldunontzat, zehatzagoa izango denik; aitzitik!; baina sozialismo demokratikoaren izenean bultzata eskandaluz eskandalu PSOEn erruz sor daiteken faxismo kutsuko tranpazulo berri hau ez zuen oso gutxi besterik espero eta ahi.